

MUNITIBAR / Munduko jolasak, hona ekarrita

IRATI URBERUAGA

Munduko jolasak bertoko umeen artera ekarri dituzte Munitibarren. Liburutegiko arduradunak antolatuta, uztailleko lau astelehenetan herriko dozena bat ume liburutegian bertan batzen hasi dira.

Uztailaren 2an batu ziren lehenengoz, eta hilaren 23ra arte elkartuko dira munduko hainbat lekutako jokoetan ibili ahal izateko tresnak egin eta, zelan ez, olgetako. Lehenengo astelehenean, Afrikako jolas bategaz olgetako aukera izan zuten: afrikar buruhaustea.

Atzo, berriz, Txinara joan ziren jolastera. Tangramean edo mikadoan aritu ziren. Horretarako, lehenengo hainbat pieza egin zituzten, eta gero, egindako zatiak elkarregaz jarrita, irudi ezberdinak lortzen nahikoa behar izan zuten.

Munduko jolasez gain, bertokoei ere egingo diete lekua. IÑIGO AIERBIDE monitoreo

Eskolan ikasten ez diren tailerrak dira irakasten ditugunak Iñigo Aierbe beasaindarra izan arren, Bilbotik etortzen da Munitibarrera, umei tailerrak zelan egin irakastera.

Zer egingo duzue uztailleko lau astelehenetan?

Munduko lau jolas ezagun bertoratuko ditugu: Afrika eta Txinakoak, adibidez. 11:00etan batzen gara, pare bat ordurako. Hasieran, materiala ematen diet, eta hori baliatuz, gero jokoan ibiltzeko beharrezkoak diren tresnak eurak egiten dituzte. Eskulanak egiteaz gainera, jokorako tartea eman nahi diegu umei.

Zein da tailer eta joko hauen helburua?

Munduko jolasak bertoratzeaz gain, haiek ezagutu eta ondo pasatzeko aukera izatea. Izan ere, eskolan ikasten ez diren tailerrak dira irakasten ditugunak. Umeek oso ondo pasatzen dute. Egilea: inprimatzeko bertsioa